

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

Hirigintza eta Garapen Iraunkorreko Arloa

*Iragarkia*

Udalbatzak 2022ko maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran honako hau erabaki zuen:

«1. Hasierako onespina ematea espedientean jasota dagoen Irungo Ondare Historiko Kulturala Babesteko Katalogoaren aldaketa puntualari.

2. Hasierako onespina ematea Ondarea Babesteko Katalogoaren Araudiaren aldaketari, espedientean dagoen dokumentuaren arabera.

3. Aldaketa hauek eragin ditzaketen lizentziak gehienez ere urtebeteko epean etetea erabakitzea, erabaki hau argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

4. Irungo Ondare Historiko Kulturalaren Babesteko Katalogoaren aldaketa puntuala eta Araudia aldatzea jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaletxeko ediktu-taulan argitaratzen den egunetik aurrera, interesdunek nahi dituzten alegazio eta iradokizunak aurkez ditzaten. 7/1985 Legearen 49. artikulua azken paragrafoan ezarritakoarekin bat, jendaurreko esposizioan ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, aldaketak behin betiko onartutzat joko dira.

Erabaki honen 1. 2. eta 4. apartatuak izapidetze-egintzak dira, eta ezin da haien kontrako administrazio-errekurtsorik aurkeztu. Erabaki honen 3. apartatuak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Haren aurka, aukeran, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoarean aurretik, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta; edo, bestela, zuzenean aurkaratu, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Gainera, egokitatzat jotzen den beste edozein errekurtsorik aurkeztu ahal izango da.»

Eta hau argitaratzen da, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 100.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Espedientea bulego orduetan kontsulta daiteke Hirigintza eta Garapen Jasangarriaren Arloan, Kostorbe Eraikina, Iparralde Hiribidea, 39, Irun eta udalaren webgunean: [www.irun.org](http://www.irun.org).

Irun, 2022ko maiatzaren 27a.—Alkatea, eskuordetuta, Hirigintzako teknikaria. (3585)

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 27 de mayo de 2022, acordó:

«1. Aprobar inicialmente la modificación puntual del Catálogo de Protección del Patrimonio Histórico Cultural de Irún que obra en el expediente.

2. Aprobar inicialmente la modificación de la Normativa del Catálogo de Protección del Patrimonio, con arreglo al documento que obra en el expediente.

3. Acordar la suspensión de las licencias que pudieran verse afectadas por las presentes modificaciones, por el plazo máximo de un año, contadas desde la fecha de publicación del presente acuerdo.

4. Someter la citada modificación puntual del Catálogo de Protección del Patrimonio Histórico Cultural de Irún y la modificación de su Normativa a exposición pública por espacio de treinta días a contar de la fecha de publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento, al objeto de que los interesados puedan formular cuantas alegaciones y sugerencias estimen oportunas. De conformidad con lo establecido en el último párrafo del citado artículo 49 de la Ley 7/1985, en el caso de que en el período de exposición pública no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderán definitivamente aprobadas.

Los apartados 1, 2 y 4 del presente acuerdo constituyen actos de trámite y no son susceptibles de recurso administrativo. El apartado 3 del presente acuerdo pone fin a la vía administrativa, y contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su publicación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su publicación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.»

Lo que se publica a efectos de lo dispuesto en el artículo 100.1 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

El expediente se puede consultar, en horas de oficina, en el Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible sito en Edificio Kostorbe, Avda. de Iparralde, 39 de Irún y en la página web del ayuntamiento: [www.irun.org](http://www.irun.org).

Irún, a 27 de mayo de 2022.—El alcalde, p.d., el técnico de Urbanismo. (3585)